

2026ko apirilaren 24a, ostirala

II. ERANSKINA

LANBIDE HEZIKETA PRESENTZIALEAN, ESKAINTZA OSOAN, ONARTZEKO,
ESLEITZEKO ETA MATRIKULATZEKO JARRAIBIDEAK

(D eta E Graduontzat).

Lehenengoa.– Onarpen-eskaera egiteko, onarpen-zerrendak argitaratzeko eta matrikulatzeko egutegia.

<u>OHARRAK:</u>	ESKAINZA OSOAN PRESENTZIALAREN IRAKASKUNTZA
Adierazitako hasiera- eta bukaera-datak epearen barruan sartzen dira. Ikastetxe batean egindako izapideak bertako idazkaritza irekita dagoen ordutegian egin beharko dira.	
Onarpen-eskaera aurkeztea (zikloko lehen mailarako bakarrik).	Maiatzaren 4tik 22ra Online: maiatzaren 22ra arte
Eskaera aldatzeko edo zuzentzeko aukera	Maiatzaren 22ra arte
Dokumentazioa aurkeztea (I. eranskinetako bosgarren jarraibidean adierazitakoa)	Ekainaren 30era arte (dokumentazioa online edo aurrez aurre ikastetxe batean aurkezten dutenentzat) Ekainaren 19ra arte (gainerakoak)
Eskaera onartuen eta ez-onartuen behin-behineko zerrenda argitaratzea	Uztailaren 6a
Behin-behineko zerrenden aurkako erreklamazioak aurkeztea	Uztailaren 9ko 12:00ak arte
Eskaera onartuen eta ez-onartuen behin betiko zerrendak argitaratzea	Uztailaren 13a
Matrikula egitea: <ul style="list-style-type: none"> • Ohiko epea <ul style="list-style-type: none"> I. fasea II. fasea III. fasea • Ezohiko epea 	<ul style="list-style-type: none"> • Uztailaren 13tik 15eko 14:00ak bitartean • Uztailaren 17an • Uztailaren 21etik 22ra • Uztailaren 23 eta 24an eta irailaren 1etik urriaren 16ra bitartean

Bigarrena.– Online nahiz aurrez aurre aurkeztutako onarpen-eskaeren berezitasunak.

Eskaera-inprimaki bakarria beteko da Eskaintza Osoaren Modalitateko Araubide Presentzialaren irakaskuntzetarako: D Graduak (Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi-mailako eta Goi-mailako Lanbide Heziketa zikloak) eta E Graduak (erdi-mailako espezializazio- ikastaroak eta goi-mailako espezializazio ikastaroak).

Inor plazarik gabe gera ez dadin, ikasleei gomendatzen zaie gutxienez hamar plaza eskatzeko eskaera betetzean.

Inprimakiak jarraibide hauen arabera bete behar dira:

- Eskatutako plaza bakoitzeko, datu hauek adieraziko dira: ikastetxea, zikloa, espezializazio- ikastaroa, maila, hizkuntza-eredua eta txanda.